

1. Mintegia: Epaiketa prozesuaren kasu praktikoa

I. Lehenengo zatia

Mintegi honetan 3 txosten perizial aztertu genituen, azalpen teorikoak laukietan sartuta dago.

1. Txosten forensea

Testua: **Informe médico forense (juzgado instrucción nº4, Bilbao)**

Klasean irakurri dugu kontzeptuak birpasatzeko, baina ez du garrantzirik azterketara begira!

Txostenaren laburpena

Erditze batean umearen heriotza gertatu da, umetokiaren haustura espontaneoagatik. Emakume honek zesarea aurrekaria zuen eta honek eragiten duen orbainak umetokiaren haustura espontaneoaren arriskua handitzen du. Gainera, esaten dute denbora gehiegi pasatu zela erregistro kardiopografikoa zegoenetik zesarea egin zen arte

Pertsona honek salaketa egiten du eta orduan juezak gaiari buruz ez dakienez ezer forensea deitzen du bere iritzia jakiteko. Forensea perito funtzionario bat da, forense izateko oposaketak egin behar dira. Juezak behin forensearen iritzia izan duela (guk irakurri dugun dokumentua hau da), perito judizial bat izendatu du (pribatua - gaian espezialista, kasu honetan ginekologoa) beste iritzi bat izateko. Guk irakurri dugun forensearen informea publikoa da.

Salaketa penal arlotik doa, salaketa jarri duen pertsonak ospitalean hanka sartze handia egin dutela adierazi du. Oso kontu larria dela salatzen duenez penal arlotik joango da.

- Kontzeptu bat azaldu dugu berriz:
 - *“Lex artis ad hoc”*: Lex artis (el arte de la medicina) ad hoc (beste mediku batzuk egiten dutena). *“Actuar según el proceder estandar en los medios habituales hospitalarios”*.
- **Egitura**: ikusten dugunez ez da beti jartzen berak esan zigun moduan, bakoitzak bere modura jartzen du. Guk txosten honen egitura aztertu dugu:
 1. Nork egin du?
 2. Zer dago eztabaidagarri?
 3. Txostenaren iturria

Forenseak juezari eskatu ahal dio pazientearen historia klinikoa, baina bestela ez du hau eskuratzeko gaitasuna. Dena den, kasu honetan demandanteak eraman du historia klinikoa demanda jartzean.
 4. Txostenaren gorputza: “consideraciones médico legales”

Hauetan informazioa biltzen da: arriskuak... ulertzeko pasatu dena hanka sartzea izan den edo ez.

5. Ondorioak

Ahalik eta laburren.

Guk gauzak nola funtzionatzen diren ulertzeko Atelaren hitzak hauek izan dira: *“Gauzak ondo egiten saiatuta ere sarritan txarto aterako dira eta gainera dena hobetu daiteke, baina penal arlotik joateko hanka sartzea oso oso handia izan behar da: esto no lo hace ni el más torpe”*. Hanka sartzea ez bada hain handia zibil arlotik joango da.

6. Bibliografia

Ez da atxikitu behar.

Arloak / Epaitegiak

- **Zibil arloa:** juzgado de primera instancia
- **Juzgado de lo Contencioso Administrativo**
- **Penal arloa:** Penal arloan 2 mota bereizten dira:
 - **Ikerketa egiten duena** - el juez de instrucción (instruye una investigación):
 - Kasua ondo ikusten badu (ez du ikusten ezer txarto egin denik) → kasua artxibatu egiten du.
 - Txarto ikusten badu → penaleko juzgadora
 - **Juizioa egiten duena**

Zergatik daude bi? Objektibitatea ez galtzeko, izan ere ikerketa egiten duena kontaminatuta egongo da.

GURE TXOSTENA ZEIN PAUSUTAN DAGO?

Juez de instrucción-ak forenseari eskatu dio bere iritzia jakiteko kasua penalera eramango duen edo ez. Horrexegatik jartzen du dokumentuaren goiko aldean: juez de instrucción nº 4. Kasu honetan peritoak ez zuenez penalera eramateko moduan ikusi, lasai gelditzeko artxibatu baino lehen perito judicial bati galdetu zitzaion bere iritzia.

Klaseko galdera: zenbat denbora pasatu daiteke pausu guzti hauek betetzen diren arte? Denbora asko, gutxienez urtebete. Arintasuna ematen zaie prisio prebentiboa daukatenari (politika kontuetan askotan ez da betetzen). Prisio prebentiboan egoteko denbora maximoa: 4 urte. Azkenik zigorra badago urte horiek kendu egiten dira.

2. Txostena (EREDUA deiturikoa)

GOGORATU! Peritoa beti joaten da juiziora

2.1. Kasuaren azalpena

Andre batek kotxe istripu baten ondorioz, zerbikaletan hartu zuen kolpea, beraz, erreumatologoarengana joatea eta errehabilitazioan hastea erabaki zuen. Behin errehabilitazio amaitu eta denbora batera, emakumeak zerbikaleko mina izaten jarraitu zuen et azkenean erreumatologoaren kontrako demanda bat jarri zuen, bere ustetan, ez zuelako ondo burutu bere lana. Berak uste zuen alta ematerako orduan beste proba osagarriren bat egin beharko ziokeela.

Epaileak peritu judicial bati eskatu zion txostena egitea. Alfonsok esan zuen oso konpletua eta oso ondo idatzita zegoela. Oso luzea da eta klasean gainera irakurri genuen.

2.2. Txostenaren atalak

1. Perituaren aurkezpena eta nork deitu duen
 2. Demandantearen datu pertsonalak
 3. Periziaren helburua: *Determinar, tras el estudio de la extensa documentación aportada incluida en autos y la solicitada mediante atentos oficios por este Perito Médico, la existencia o no de mala praxis médica por omisión o incumplimiento del deber de actuar diligentemente mediante la realización de pruebas complementarias y su influencia en la producción del daño final que se reclama.*
 4. Dokumentuaren iturria
 5. Hizkuntza medikoko glosarioa
 6. Historia klinikoaren kronologia eta eboluzioa
 7. Historia klinikoaren laburpena: normalean ez da behar izaten, baina kasu honetan historia klinikoa hain luzea denez, dena ez irakurtzeko laburpen bat egin zuen.
 8. Pazientearen gaur egungo egoera eta azterketa fisikoa
 - a. Anamnesia
 - b. Azterketa fisikoa
 9. Kontsiderazio mediko perizialak
 10. Ondorioak: *"no ha existido, a criterio de este Perito Médico, mala praxis en la actuación profesional del Dr. L, ni ha influido en el futuro devenir del proceso evolutivo degenerativo."*
- Ondoren hurrengo agertzen da aipatuta. Peritoak eginiko txosten guztietan agertu beharreko gauza da: *"El perito médico firmante, manifiesta bajo juramento decir verdad y haber actuado con la mayor objetividad posible, tomando en consideración tanto lo que pueda favorecer como lo que sea susceptible de causar perjuicio a cualquiera de las partes, y que conoce las sanciones penales en las que podría incurrir si incumpliere su deber."*
11. Bibliografia: ez da joaten atxikituta.

KONTUAN HARTU! Juizioak hiru zati dituela:

1. **Demanda eta erantzuna:** hau idatziz egiten da.
2. **Audiencia previa:** juizio aurreko batzarra. Abokatuak epailearekin batzartzen dira, eta bertan behar diren probak eskatzen dira (adibidez kasu honetan, emakumearen osakidetzako historiala). Epaileak esango du ea ze lekuko onartzen diren eta ze proba onartzen diren.
Audiencia previa honetara abokatu doa bere perito pribatuarekin. Behin informea ikusten dituenean, epaileak peritu judicial bat eska dezake. Peritu judicial horrek txostena juizioa izan aurretik egin eta emango die abokatuei.
3. **Juizioa:** lekuko moduan doazenak alde aurretik jakingo da nortzuk diren! Peritu judiciala ere juiziora joan beharko da. Lehen esan moduan proba denak juizio aurretik jakingo ditugu zeintzuk diren, hortaz proba dokumentu berriak azaltzea oso gaitza izango da.

3. Txostena (DD deiturikoa)

Procurador de los tribunales: abokatu eta klientearen arteko kontaktua juzgadoan.

Familia batek Zurichen kontra eginiko demanda bat agertzen da, aseguratorako mediku batek gauzak txarto egin eta kalteak sortu dizkiolako dituelako. Kasu honetan PSA igoera baten ondorioz prostata minbizi bat topatu zioten eta brakiterapia eman zioten tratamendu moduan. Behin osatuta, urologoak jarraipena egin zion PSA baloreak neurtuz (ikusi driveko "ficha clinica de seguimiento"). PSA baloreak bat- batean handitu egin ziren eta halako batean denboratxo bat pasata konturatu ziren maskuriko minbizi bat zuela (minbizi honegatik hiltzen da pazienteak).

Recidiba biokimikoa (PSAren igoera) 2004ko abenduan detektatu zutela dio informeak. Gainera, informean patologia basal garrantzitsurik ez zuela jartzen du (gezurra da).

Klaseko galdera: Peritoak gezurra esan badu informean ezin zaio ezer pasatu? Bai. Denuntziatu ahal duzu juizioaren ostean. Baina juizio horretan, beste partearen alde egonda, peritoaren adierazpenak egokiak ez direla arrazoitu eta zure iritzia defenditu behar duzu.

- **Pérdida de oportunidad / acción contraria a lex artis:** Informean zera leporatu nahi da: ez zaio bizitzeko oportunitaterik eman, tratamendua (erreskate kirurgia) eman baliote bizirik egongo litzateke.

Txosten bat egiten dugunean, beti kontuan izan behar dugu sasoi horretan (gertakaria gertatu zen urtean) zein medikuntza mota egiten zen. Adibidez kasu honetan, informea 2015.urtean egin zen eta informean hainbatetan adierazten da: "las guías vigentes/actuales/... dicen..." baina gertakaria 2005.urtean gertatu zen eta beraz 2005.urteko gidek zer esaten zuten bilatu beharko dugu.

Informean ikusten da nola peritoak bakarrik hartu duen interesatu zaizkion datuak; adibidez, PSAren baloreak bakarrik data batzuetakoak hartu ditu.

- **Eskatzen den dirua:** gaur egun baremo batzuk existitzen dira, segun zer gertatu den diru gehiago edo gutxiago eskatuko dute demandan. Eskatzen duzun dirutzaren arabera izango da prokuradorearen eta peritoaren minuta (zenbat diru kobratzen duen minutuko). Hortaz, dirua eskatzerakoan kontuan izan beharko dugu, galtzekotan agian dirua zor egingo dugula.

+ Info: Bizkaian badago asoziazio bat: asociación de víctimas de errores médicos. Gomez Mentxaka anaiak sortua. Hauek beti joaten dira juiziora, diru asko eskatzen dute eta bezeroari bere abokatuak duten baimen informatu moduko dokumentuan ez dute ondo adierazten condena en costas. Hori dela eta, asociación de víctimas de hermanos Gomez Mentxaka ere existitzen da.

Condena en costas: beraiei bezeroak dirua eman beharko die kontratatu egin dielako. Baina horretaz aparte, juizioa galtzen baduzu, juizioaren kostea ordaindu beharko duenez, kontrako abokatuak, prokuradorea eta peritoa ordaindu beharko ditu. Zenbat? Segun zenbat eskatzen duzun. Zergatik? Suposatzen delako juizioa injustua izan dela.

Klaseko galdera: medikuak noizbait pagatzen du? Ez. Seguruak ordaintzen du. Beraz Atela segurutik jasotzen du dirua edo condena en costas jasotzen badu, seguruari eman dion dirua bultatu eta condena de costasik lortu duen diruarekin gelditzen da (diru gehiago izaten da).

II. Bigarren zatia

Bigarren zati honetan, lehenengo zatiko azken puntuan landu zen demandaren auzia ikusi dugu (bideoan). Komisio honetan egindakoa auzia ikusi dugunean azpimarratu diren ideiak eta ondorioak batu ditugu. Auziaren ostean, egon ziren bi ebazpenetatik (“de primera instancia” eta “de audiencia”) garrantzitsuena irakurri digu Alfonek.

1. Auzia

Erantzukizun zibila, perituen lana eta beste hainbat kontzeptu ikusiko ditugu. Juizioa 2016ko Apirilak 19an izan zen. Juizioak publikoak dira, berez, edonor joan daiteke.

- Demandan (bide zibiletik) agertzen zena laburtuta: pazienteak prostatako minbizia zuela, reskateko kirurgia egin behar zitzaiola baina ez zitzaiola egin eta horregatik hil zela. Prostatako minbiziagatik (horregatik bakarrik) hil zela.
- Epaiketan epailea erdiko mahaian dago, honen eskuinean demandantearen abokatuak kokatzen dira. Ezkerreko aldean berriz, demandatuaren (kasu honetan Zurich aseguradora) abokatua eta prokuradorea.

- PROKURADOREA: Prokuradorea izateko zuzenbidea ikasi behar da ere. Amaitzean, abokatua izan zaitezke edo prokuradorea. Prokuradorea, juzgadoan representantea da, egunero daude auzitegian. Abokatuak berriz, gutxiagotan doaz eta egiten dutena defendatzea da.

(Wikipediatik) El procurador examina y realiza el seguimiento tanto de los escritos que presenta en el decanato del juzgado como de las notificaciones que posteriormente envía a los abogados. Cuando existen errores o deficiencias, los pone en conocimiento de los abogados o de la oficina judicial para que sean subsanados, siempre dentro de plazo. También realiza el traslado de escritos a la parte contraria en el pleito e informa a su cliente sobre el transcurso del proceso. Otra función importante radica en la ejecución de resoluciones judiciales (autos, sentencias y decretos), siendo en muchos casos el impulsor de las mismas.

- **Lekuko peritoak agertzen dira lehenengo.** Hauek aurkeztu daitezke edo ez.
 - Lehenengo lekuko peritua deitzen dute, tratamendua jarri ziolako, baina ez da aurkezten.
 - Bigarren lekuko peritua (testigo perito) deitzen da (*hil baino lehenago pazientari ebakuntza egin ziona, baina ez zen bere pazientea*), aurkeztu egiten dena.
 - Lekuko peritoak azalpenak ematerako orduan ulergarriak izan behar dira, abokatuak eta epaileak ulertzeko modukoak.
 - Abokatuak galderak egingo dizkiote. Baina ez dago galdera perizialak erantzutera derrigortua, azken finean, lekukoa delako.
 - Batzuetan abokatuak egiten duena da lekuko bati balorea kentzen saiatzea. Horregatik demandantearen abokatuak lekuko peritoari

galdetzen dio, ia bera eta pazientea tratatu zuen medikua lagunak ziren. Frogatu nahi zuelako parteekin laguntasun hurbila zegoela. Baina kontuan izan kasu honetan demanda ez zaiola medikuari jartzen (demandanteen arabera reskateko kirurgia egin behar zion medikuari), baizik eta Zurich Aseguradorari. Beraz, galdera horiek egiteak, ez dauka zentzurik, lagunkidetasuna Zurich eta lekukoaren artean izango balitz bakarrik liteke garrantzitsua.

- Kontuan izan behar da, **gaur egun epaitzen ari dela orain dela 10 urte gertatu zena.**
- Demandatuaren abokatuak (Alfonsok) DOCUMENTAL bat eskatu zion Sociedad Española de Urologíari, ia 2004an kasu honen aurrean tratamendua zein izan behar zen jakiteko.
 - Sociedadeak erantzun zion: horri hobeto erantzuteko pazientearen historia klinikoa behar zuela, baina historia demandantearen abokatuak bakarrik zeukan, ez aseguratorak. Eta gainera epaiketaren egunean ez zuen eraman. Horrela aseguratoraren (demandatua) abokatuaren intenzioa, beste abokatuak dokumentuak ezkututzen ari dela erakustea da.
 - Hala ere, Sociedadeak zituen datuekin pazienteak jasotako tratamendua gertatu zen momenturako egokiena zela esan zuen.
- Lekuko peritoaren ondoren, **abokatuak ekartzen dituzten peritoak sartu behar dira.** Horretarako epaileak abokatu biei galdetzen die ia batera (bi peritoak) sartuko diren ala bakoitza bere aldetik.
 - Kasu honetan, lehenengo demandantearen perittoa sartu zen (Bartzelonatik etorritako onkologa bat) eta gero demandatuarena (urologo bat).
 - Peritoak sartzean, lehenengo perittoa proposatu (ekarri) duen abokatuak egingo dizkio galderak eta gero beste abokatuak. Epaileak ere galderak egiteko aukera dauka.
 - Perito batek gezurra esaten baldin badu zigorra izan dezake. Kasu honetan lehenengo peritoak (demandantearenak) esan zuen pazienteak ez zuela inolako aurrekari pertsonalik, eta gero ikusi zen hainbat zituela: 3 tumore desberdin, kardiopatia larriak...
 - Peritoak informean gezurra esaten badu salaketa jarri daiteke eta kartzelara joan daiteke.
 - Epaiketan peritoak gezurra esan eta hori agerian geratzen bada, ziur aski epaileak ez du perito horrek esaten duena asko sinetsiko.
- Demandantearen peritoaren ostean, **bigarren perittoa** sartzen da. Oraingoan ere, lehenengo proposatu duen abokatuak egingo dizkio galderak (Aseguratoraren abokatua, Alfonso) eta gero beste abokatuak (demandanteak).
 - Kasu honetan, aurreko peritoarekin alderatuz, ikusten da peritoaren jarrera desberdina dela. Bi parteen galderak jarrera berarekin erantzuten ditu, eta aurreko peritoak esan dituen hainbat argudio ez datoz bat (aurrekari pertsonalak dituela esaten baitu adibidez).
- Peritoen erantzunak jaso ostean, **abokatu bakoitzak epaileari aurkezten dizkio bakoitzak ateratako ondorioak** (bakoitzak bere alde eginez) eta bakoitzarentzat garrantzitsuena azpimarratzen dute.

- Azkenean epaileak honako hau kontuan hartuko du (Klasean ikusi genuen aurreko batean):
 - **LEX ARTIS-en kontrako ekintza** (edo omisioa)
 - **Kaltea**
 - **Kausaltasun lotura**: oso garrantzitsua da, zalantzan badago ez du balio. Eta kasu honetan bi minbizi zituen, paziente pluripatologikoa zen (bihotz gutxiegitasuna...) eta ez zitzaion nekropsiarik egin. Beraz kausaltasun lotura ez zegoen argi. Hiru hauek pazienteak (demandanteak) frogatu behar ditu beti. Salbuespena: sortutako kaltea neurritz kanpoko izan denean, medikua (edo demandatua) da frogatu behar dituenak.

2. Ebazpenak

2.1. Primera instancia

Diagnostikoan akatsik egon ez dela dio eta tratamenduan erreklamatu daitekeen ezer ere ez dagoela esaten du epaileak.

Epaileak defentsaren peritoak ezagutza kliniko gehiago dituela ondorioztatzen du. Bartzelonako onkologoak teoria asko daki baina ez du ia esperientzia klinikorik (gainera berak ez du inoiz prostatako kirurgiarik egin).

Esan bezala, hurrengoetatik hirurak behar dira kondena lortzeko. Horietako batek huts egin ezkerok ez dago kondenarik.

- Lex artis-en kontrako ekintza (edo omisioa)
- Kaltea
- Kausaltasun lotura.

Epaileak hasieratik lehenengoa eztabaidatzen du. Hau da, Lex artis-en kontrako ekintzarik egon ez dela esaten du. Gero gainera, kausaltasun lotura ere ez dagoela dio (pazientean maskuriko neoplasia batengatik hiltzen dela dio). Hortaz, ezin da demandatua (Zurich aseguratzailea) kondenatu.

Pazienteak urte horietan jaso zuen tratamendua garai horretarako egoera kontuan hartuta egokia izan zela.

Azkenean ebazpenean **demandatuaren alde** egiten du.

2.2. Ebazpen auzia. Errekurtsoa.

Errekurtsoan demandantearen abokatuak dio, epaileak ez dituela probak ondo baloratu. Errekurtsoan probak berriro aztertu daitezke, 3 magistratuk egingo dute, baina normalean epaiketa aztertzen da.

Bigarren ebazpenean ere lehen azaldutako frogatu beharreko hiru puntuak ez direla betetzen errepikatzen da. Gainera, defentsaren argudio gehienak espekulaziozkoak zirela gaineratzen dute.

ONDORIOA: Medikuek eskaini behar dituen zainketak zientziaren egoeraren (*“estado de ciencia” momentuaren arabera zientzia nola dagoen, ez da berdina gaur egun eta orain dela 10 urte zegoena*) menpe egongo dira. Eta kasu honetan, garai hartan protokoloek esaten zutena eta egin ahal zena egin zen. **Errekurtsoak epaileak balorazioa ondo egin duela eta demandatuaren alde egiten du ere.**

2. Mintegia: *Sendagile aditua*

Gaurko mintegira mediku peritu bat (Fernando Loidi) etorri da eta klasean bere lanaren inguruko nondik norakoak kontatu dizkigu.

1. Zer behar da sendagile aditua izateko?

Edozein mediku izan daiteke sendagile aditua, baina beharrezkoa izango da:

- **Medikuntzako titulua** derrigorrez
- **Espezialitatea**, edozein (kardiologia, neurologia...) Hori kontuan hartuta, peritu lanak espezialitate horretan bakarrik burutu ditzake.

Mediku espezialistak, sendagile aditu moduan jardutean ezin dute kaltearen diruzko balorazioa egin. Lan hau **kalte perituek** (especialistas en valoración de daño) egiten dute. Aditu hauek oso garrantzitsuak izango dira geroago aztertuko dugun txosteneko **kausalitate irizpideak** aztertzerako orduan, gaiari buruzko jakituria handia dutelako.

Jakin datu bezala, mediku orokorra ere izan daitekeela sendagile aditua, baina bakarrik ezintasuna emateko.

2. Sendagile adituaren eremua zein da?

- **Zibileko erantzukizuna.** Arlo honetan, medikuen ekintzak eta istripuak epaitzen dira. Lesioen balio ekonomikoa, perituek baloratuko dute kotxe istripuetarako dagoen baremoaren bitartez.
- **Gizarteko erantzukizuna.** Lanerako ezintasun iraunkorra, totala, partziala... eta lan istripuak aztertzen dira.
*Arlo honetan baloratzen den ezintasuna, lan eremuari egiten dio erreferentzia, hau da, pertsona horren gaitasuna baloratzen du lan bat burutzerako garaian.
- **Zigor erantzukizuna.** Erasoengatikozaurituak. Garrantzitsua da eragindako kaltearen arabera zigorra handiagoa edo txikiagoa izango dela jakitea.

Kalteen balioa baloratzeko orduan, esan bezala, kotxe istripuetan eragindako lesioak neurtzeko baremo bat dago zibil arloan. Gizarte eta zigor erantzukizunetan, baremorik ez dagoenez, askotan zibil arloko baremoa erabiltzen da.

- **Administrazioarekiko auziak.** Mendetasun eta ezintasun arazoak ebatzen dira. Mendetasunak portzentaietan baloratzen diren bitartean, desgaitasunak puntuetan. *Adibidez, ezintasun bat ematen badigu Bizkaiko Aldundiak eta honekin ados ez bagaude arlo honetatik jo dezakegu.*
- **Familia auzitegia** (zibileko erantzukizunetan sartzen da). Ezintasun judizialak emateko. Parametroak daude ezintasuna baloratzeko: gidatzea, armak erabiltzea, administrazio paperak egiteko gai izatea, dirua maneatzea, funtzio konplexuak egiteko gaitasuna izatea (erabakiak hartu, adib)... Epaileari zein fiskalari azaldu beharko diogu zein ezintasun maila duen.
*Bitxikeria moduan fiskalaren lana orokorrean, legea betetzen dela ziurtatzea da. Kasu hauetan, batzuetan ezintasuna duela eta tutore bat behar duela esango du edo alderantziz. Laburbilduz, gehienetan "gaiztoaren" papera duen arren, egoera hauetan kaltetuaren alde egiten du.

Jakin kasu bakar bat aurreko alor guztietatik pasa daitekeela. Demagun kotxe batek pertsona bat harrapatu eta lesio larri bat eragiten diola. Kaltetuak, denuntzia bat jartzen du zigor arlotik harrapatua izan delako, hortik kasua artxibatzen bada, zibil arlora doa. Hemen seguruak, perituak adierazitako dirua emango dio kaltetuari. Gero, gizarte arlora joango da betirako pentsio bat lortzeko, lanerako ezintasunagatik. Honez gain, administraziokora ere joko du kaltetuak diputazioan diru-laguntza eskatzeko. Bukatzeko, familia auzitegira joan daiteke ezintasuna eman eta bere familiak ondasunak administratu ahal izateko.

Peritua tresna objektibo bat izango da, epaileari egoera edo kasua ulertzen lagunduko diona.

3. Txostena

3.1. Atal orokorra

- **Aurkezpena:** Peritua aurkezten da, bere titulua, kolegiatu zenbakia... adieraziz.
- **Juramentua** (zinpean). Oso garrantzitsua da hau jartzea, hala ez bada, peritua testigu moduan hartuko delako eta ez aditu bezala.
- **Zer asmo/helmuga:** Enkargua nork eman dion eta zein asmorekin zehazten da.
- **Egiaztagiriak:** Informea egiteko erabilitako dokumentazio guztia adierazten da. *Berak, kronologikoki egitea gomendatzen du.*
- **Historia kronologikoa:** Gertatu den guztia kontatzen da puntu honetan: kirurgia datak, altak, errehabilitazioa... Kontuan hartu, kontsulta batetik bestera ezingo direla 6 hilabete baino gehiago pasa, bestela kontrol bezala kontsideratuko direlako. Tratamendu epean egoteko, kontsulta jarraiak izan behar dute.
- **Lan postua:** zer egiten duen, zenbat ibiltzen den, eskailerak igo behar dituen, ze pisu hatzen dituen, ze mugimendu egiten dituen... aipatzen da.
- **Azterketa berezia:** Azterketa baliogarria izateko zehatz-mehatz egin behar da eta fina izan behar du. Behatutakoa, puntuazio batekin baloratzen da. Oso garrantzitsua da alde bietako gorputz atalak baloratu eta konparatzea, kaltea pertsona zehatz horretan zenbatekoa den jakiteko. Bi aldeak kaltetuta badaude, datu osasuntsu teorikoetan oinarrituko gara kaltea zehazteko.

3.2. Gorputz kaltea

- **Norbanakoaren aurrekariak:** Balorazioan ezin dira gehitu.
- **Hasierako zauriak:** Urgentzian eginiko diagnostikoa.
- **Konkausa:** Lesio multzo bat da. Lesio horiek ez dira istripuaren ondorioz agertu (istripua baino lehenago edo beranduago ager daitezke) baina istripuko lesioen eboluzioan eragiten dute. *Adb, diabetesa.*
- **Kausalitatearen irizpideak:** Baloraziora pasa aurretik, ondorioak lesioagatik diren edo lehendik datozen baloratu beharko dugu. Horretarako kausalitatearen irizpideak hartzen dira kontuan. Hurrengo lauak dira garrantzitsuenak:
 - Intentsitate irizpidea
 - Kronologikoa
 - Topografikoa
 - Berosimilitatea/sinesgarritasuna

Adituek, lesioak irizpideak bete ditzakeen edo ez esaten dute. Laurak bete baditzaie, onartzen da lesioa istripuaren ondoriozkoa izan daitekeela.

- **Balorazioa:** Hurrengo atalak ditu.
 - Ondorioak: Puntu honetan, geratutako ondorioak (secuela) adinaren arabera baloratzen dira eta puntuazio bat ematen zaie, diru bat balioko duena.
 - Garaiak: zenbat egun egon den ospitalean, zenbat egun egon den larri, erdipurdi eta normal. Garai bakoitzak bere diru balioa izango du baremoaren arabera. *Adib oraingo baremoan, UCI egun bakoitza 100 euro, plantan 75...*
 - Bakoitzaren kaltea (perjuicio particular)
 - Ondasun kaltea
- **Bukaera/ondorioa:** dena batu behar da eta ateratako ondorioak aipatzen joango gara. Hemen guztia batu eta laburtuko da.

3. Judizioa

- **Zitazio zedula, perito edo testigu bezala (auzitegia, gela, ordua eta eguna).** Informe asistentzial bat eginez gero, testigu moduan joango gara eta epaileak deituz gero derrigorrezkoa da asistentzia. Testigu bezala joatean, ez da derrigortasunik egongo galdera perizialei erantzuteko.
Gogoan izan, medikuak sekretu profesionala gordetzeko beharra duela, hau ez betetzeko aukera epaileak eman diezaioke (liberatu).
- **Banaka edo batera.** Adituak banaka edo biak batera sar daitezke, epaileak deituta.
- **Erantzun galderei (demandatzailea/demandatua/epailea).** Lehenengo demandatzaileak eta gero demandatuak egingo ditu galderak. Epaileak, aldiz, edozein momentutan galdetu dezake zerbait argi geratu ez bazaio.
- **Eskatu irtetea (jaun/andere hori).** Perituek hitz egin ostean, zenbaitetan azken ondorioei buruz hitz egiten hasten dira (epailea eta abokatuak)oraindik aditua bertan dagoela. Kasu hauetan, epaileari irteteko baimena eska diezaioke perituek.
- **Dirua.** Kontratatuak diren perituek ziurtatua dute euren lana ordainduko zaiela. Adituek, aldiz, entitate publiko batek testigu bezala epaiketa batean parte hartzeko eskatzen dienean, baimena eskatu beharko dute lanean egun libre bat izateko eta epaitegira joan ahal izateko. Pertsona hauek zitazioan adierazten den bezala, 180-600 arteko isuna jaso dezakete agertu ezean. Bestalde, testigu guztiek eskubidea dute gastuen (bidaia, hotela, janaria...) dirua eskatzeko edota egun horretan epaitegira joan ez balira irabaziko luketen dirua (klinika pribatuetako medikuek) erreklamatzeko. Horretarako, guztia justifikatu eta frogatu behar da.